Beste Iragarki Ofizial Batzuk

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

EDIKTUA, Funtzio Publikoaren zuzendariak 2007ko abuztuaren 23an emandako Ebazpena jakinarazteko; izan ere, aipatutako ebazpen horren bidez Roberto Iguaran Oyarzabal jaunak bidegabeki 2003. urtean jasotako ordainsariak atzera itzultzeko eskatzen da. 25787

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

EDIKTUA, M.ª Aranzazu Lazcanoiturburu Egaña andreari jakinarazten diona hamar egun dituela egoki iritzitako alegazioak eta agiriak aurkezteko. 25789

IRAGARKIA, 490/07 administrazioarekiko auzierrekurtsoaren administrazio-espedientea bidali egin dela jakinarazteko eta hirugarren interesatuak epatzeko dena. 25790

KULTURA SAILA

IRAGARKIA, interesdunei uztailaren 17ko 120/2007 Dekretua jakinarazteko dena. Dekretu horren bidez, Debako (Gipuzkoa) Praileaitz I Haitzuloa, Monumentu izendapenaz, Kultura Ondasun gisa deklaratzen da. 25791

Otros Anuncios Oficiales

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

EDICTO por el que se notifica la Resolución de 23 de agosto de 2007, del Director de Función Pública, por la que se reclama la devolución de las retribuciones indebidamente percibidas por D. Roberto Iguaran Oyarzabal en el año 2003. 25787

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

EDICTO por el que se emplaza a doña M.ª Aranzazu Lazcanoiturburu Egaña, para que en un plazo de diez días presente las alegaciones y aporte la documentación que estime oportuno. 25789

ANUNCIO de remisión del expediente administrativo del recurso contencioso-administrativo n.º 490/07 y emplazamiento de terceros interesados. 25790

DEPARTAMENTO DE CULTURA

ANUNCIO por el que se notifica a los interesados el Decreto 120/2007, de 17 de julio, por el que se califica como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, la Cueva de Praileaitz I, sita en Deba (Gipuzkoa). 25791

Xedapen Orokorrak

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

6114

AGINDUA, 2007ko urriaren 8koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena; horren bidez gas-erregaien erabilerari zein banaketari eta ICG (1-11) jarraibide tekniko osagarriei buruzko Arautegi teknikoarekin loturiko arauak eman dira.

Gas-erregaien erabilerari zein banaketari eta ICG (1-11) jarraibide tekniko osagarriei buruzko Arautegi teknikoa onartzen duen uztailaren 28ko 919/2006 Errege Dekretuaren bidez arautu dira mota horretako instalazioak egiteko garaian aintzat hartu beharreko baldintzak.

Aipatu Errege Dekretua gure Autonomia Erkidegoan aplikatzeko, ezinbestekoa da hori garatzeko zenbait xedapen ematea eta gas-instalazioekin loturiko al-

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

6114

ORDEN de 8 de octubre de 2007, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se dictan normas en relación con el Reglamento técnico de distribución y utilización de combustibles gaseosos y sus instrucciones técnicas complementarias ICG 01 a 11.

El Real Decreto 919/2006, de 28 de julio, por el que se aprueba el Reglamento técnico de distribución y utilización de combustibles gaseosos y sus instrucciones técnicas complementarias ICG 01 a 11, ha venido a regular los requisitos a tener en cuenta para este tipo de instalaciones.

La aplicación del citado Real Decreto en esta Comunidad Autónoma hace necesario adoptar ciertas disposiciones de desarrollo y actualizar otras disposiciones es-

derdi jakin batzuk arautu dituzten beste hainbat xedapen espezifiko eguneratzea.

Bestalde, urtarrilaren 29ko 28/2002 Dekretua, etxeeta merkataritza-erabilerako eta erabilera kolektiboko gas-zerbitzuen instalazioak nola ikuskatu eta berrikusi arautzen duena (2002-02-14ko EHAA), eta Dekretu hori garatzeko xedapenak ematen dituen 2002ko apirilaren 16ko Agindua (2002-05-09ko EHAA) aplikatzen hartutako esperientziak erakutsi du aplikazio hori hobetzeko zenbait alderdi eguneratu behar direla. Honela, 2007ko irailaren 11n argitaratutako 136/2007 Dekretuaren bidez (2007-09-24ko EHAA) 28/2002 Dekretua aldatu eta kontuan izan beharreko irizpide berriak ezartzen dira.

Petrolio-gas likidotuak (PGL) tanga finkoetan biltegiratzen dituzten instalazioetan egin beharreko aldizkako ikuskapenak eta mantentze-lanak arautzen dituen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2004ko azaroaren 4ko Aginduari (2005-02-18ko EHAA) dagokionez, zenbait aldaketa egin behar dira eraginkorragoa izan dadin.

Aipatutako lege-xedapenak eta oro har aplikatzekoak diren eta horiekin bat datozen gainerako arauak ikusi dira, eta honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Instalazioak abiaraztea.

1.– Gasa hartzeko instalazioetan, instalazioari konektatutako gailu guztiak martxan jartzeko, arduradunek gailuak martxan egotearen ziurtagiria aurkeztu beharko dute enpresa banatzaile edo hornitzailean, hogeita hamar eguneko epean.

2.– Petrolioaren Gas Likidotuen (PGL) ontzi mugikorren bidezko biltegien guztizko edukierak 350 kg-ko muga gainditzen badu, Industriako Lurralde Bulegoari igorri beharko zaio Petrolioaren Gas Likidotuen biltegiratzearen instalazio-ziurtagiria.

3.– 1. eranskinean adierazi ditugu instalazio hartzaileetarako erabili behar diren ziurtagiri-ereduak.

2. artikulua.– Instalazio hartzaileetako ikuskapen eta azterketak.

1.– Etxe- eta merkataritza-erabilerako eta erabilera kolektiboko instalazio hartzaileen, instalazio komunen edo galdara zentralizatuak dituzten instalazioen ikuskapen eta azterketak, etxe- eta merkataritza-erabilerako eta erabilera kolektiboko gas zerbitzuen instalazioak nola ikuskatu eta berrikusi arautzen duen ekainaren 29ko 28/2002 Dekretuan (2007ko irailaren 11ko 136/2007 Dekretuak aldatzen du dekretu hori) eta etxeeta merkataritza-erabilerako eta erabilera kolektiboko gas zerbitzuen instalazioak nola ikuskatu eta berrikusi arautzen duen urtarrilaren 29ko 28/2002 Dekretua garatzeko xedapenak ematen dituen 2002ko apirilaren

pecíficas que han ido regulando aspectos concretos relacionados con las instalaciones de gas.

Por otra parte, la experiencia adquirida en la aplicación del Decreto 28/2002, de 29 de enero, por el que se regula la inspección y revisión de las instalaciones de gas en servicio, destinadas a usos domésticos, colectivos o comerciales (BOPV de 14-02-2002) y la Orden de 16 de abril de 2002, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se dictan las disposiciones de desarrollo (BOPV de 09-05-2002) hace necesario actualizar ciertos aspectos para mejorar su aplicación. De esta forma, se ha modificado el Decreto 28/2002 mediante el Decreto 136/2007, de 11 de septiembre (BOPV de 24-09-2007), estableciendo nuevos criterios a tener en cuenta.

Además, en relación con la Orden de 4 de noviembre de 2004, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regulan las inspecciones periódicas y el mantenimiento de los almacenamientos de gases licuados del petróleo (GLP) en depósitos fijos (BOPV de 18-02-2005), se hace necesario realizar algunas modificaciones para mejorar su eficacia.

Vistas las disposiciones legales citadas y otras de general y concordante aplicación,

DISPONGO:

Artículo 1.– Puesta en servicio de instalaciones.

1.– En las instalaciones receptoras de gas, la certificación de puesta en marcha de todos los aparatos conectados a la instalación será presentada en la correspondiente empresa distribuidora o suministradora por los agentes encargados de su realización, en el plazo de treinta días.

2.– En caso de que los almacenamientos con envases móviles de Gases Licuados del Petróleo (GLP) superen los 350 kg de capacidad total, deberá remitirse una copia del certificado de instalación del almacenamiento de GLP a la Oficina Territorial de Industria.

3.– Los modelos de certificados a utilizar en las instalaciones receptoras se indican en el anexo 1.

Artículo 2.– Inspecciones y revisiones de instalaciones receptoras.

1.– Las inspecciones y revisiones de las instalaciones receptoras destinadas a usos domésticos, colectivos o comerciales, y las instalaciones comunes o con calderas centralizadas, se realizarán atendiendo a lo indicado en el Decreto 28/2002, de 29 de enero, por el que se regula la inspección y revisión de las instalaciones de gas en servicio, destinadas a usos domésticos, colectivos o comerciales, modificado por el Decreto 136/2007, de 11 de septiembre y la Orden de 16 de abril de 2002, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se dictan las disposiciones de desarrollo del Decreto 28/2002, de 29 de enero, que regula la inspección y

16ko Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren Aginduak ezartzen duenaren arabera egingo dira.

2.– Aipaturiko 2002ko apirilaren 16ko Aginduan, honako idatz-zati hauek aldatu egin dira:

a) 1. artikuluko 3. eta 4. paragrafoak -ikuskapen eta azterketei buruzkoak- aldatu dira, eta honela geratu dira:

«3.– Banaketa-sare baten bitartez hornitzen diren instalazioak ikuskatu egin beharko dira, baldin eta instalazioen titularra enpresa-banatzaile bat bada eta bere zeregina hirugarrenei hornitzea bada; PGLa biltegiratzeko tanga finkoek hornitzen dituzten instalazioak ere ikuskatu egin beharko dira, baldin eta eraikin bereko edo higiezin multzo pribatu bateko erabiltzaileei hornitzen badiete, betiere Jabetza Horizontalari buruzko Legearen 24. artikuluan xedatutakoaren arabera.

4.– Erabiltzaile bakarrarentzako PGLen ontzi mugigarriek edo depositu finkoek hornitzen dituzten instalazioak aztertu egin beharko dira.»

b) Honako idatz-zati hauek aldatu eta honela geratu dira:

«3.1.1.a) Gas-ihesa.»

«3.1.1.b) Tutu malgua nabarmen kaltetua, edo elastomerozkoa, labe baten edo bestelako egosteko aparatuen horma beroekin kontaktuan.»

«3.1.1.e) Errekuntza arriskutsua izatea, lokalean 30 ppm-tik gorako karbono monoxidoaren kontzentrazioa atzeman delako eta aparatuari 1.000 ppm-tik gorako isuria atzeman zaiolako (galdara itxien kasuan ez da aplikatuko).»

3.1.1.f) Errekuntza txarra izatea, lokalean 15 eta 30 ppm bitarteko karbono monoxidoaren kontzentrazioa atzeman delako, eta aparatuari 400 eta 1.000 ppm bitarteko isuria atzeman zaiolako, baldin eta lokalak ez badu airearentzako sarbiderik (galdara itxien kasuan ez da aplikatuko).

«3.1.1.h) Hustubiderik ez izatea edo dagoena egokia ez izatea (diametro txikiegia, estugunea, materialak egokiak ez izatea, itxia ez izatea, kota jaistea atmosferikoetan, deflektorerik ez izatea).

Tiro naturaleko aparatuak aireztatzeko hustubideen kasuan —zuzenean kanpora edo patiora husten dutenak—, muturrean deflektorerik ez izatea ez da irregulartasuntzat hartuko, baldin eta aparatua kokatua dagoen lokala edo galeria kanpoaldetzat hartzen bada.»

«3.1.2.a) Kanpoalderako gas-ihesa, arriskurik gabea (PGLan izan ezik).»

revisión de las instalaciones de gas en servicio, destinadas a usos domésticos, colectivos o comerciales.

2.– Se modifican los siguientes apartados de la citada Orden de 16 de abril de 2002, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo:

a) Se modifican los apartados 3 y 4 del artículo 1, sobre inspecciones y revisiones, que quedan redactados en los siguientes términos:

«3.– Se someterán a inspección tanto las instalaciones suministradas a través de una red de distribución, siempre que su titular sea una empresa distribuidora y su objeto el suministro a terceros, como las suministradas desde depósitos fijos de almacenamiento de GLP que suministren a varios usuarios de un mismo edificio o de un complejo inmobiliario privado, en los términos previstos en el artículo 24 de la ley de la propiedad horizontal.

4.– Se someterán a revisión las instalaciones suministradas por envases móviles o por depósitos fijos de GLP para a un solo usuario.»

b) Se modifican los siguientes apartados, que quedarán redactados como sigue:

«3.1.1.a) Fuga de gas.»

«3.1.1.b) Tubo flexible visiblemente dañado o de elastómero en contacto con las paredes calientes de un horno u otros aparatos de cocción»

«3.1.1.e) Combustión peligrosa al detectarse en el local concentraciones de monóxido de carbono superiores a 30 ppm, así como emisiones del aparato superiores a 1.000 ppm (no será aplicable a las calderas estancas).»

«3.1.1.f) Mala combustión al detectarse en el local concentraciones de monóxido de carbono entre 15 y 30 ppm, así como emisiones del aparato entre 400 y 1.000 ppm, si no existe en el local orificio de entrada de aire (no será aplicable a las calderas estancas).»

«3.1.1.h) Evacuación inexistente o no adecuada (diámetro menor, estrangulación, materiales inadecuados, no estanco, descenso de cota en atmosféricas, sin deflector).

En el caso de conductos de evacuación directa al exterior o a patio de ventilación de aparatos de tiro natural, la inexistencia de deflector en su extremo no se considera anomalía si el aparato está situado en local o galería con consideración de zona exterior.»

«3.1.2.a) Fuga de gas al exterior sin riesgo (excepto en GLP).»

«3.1.2.i) Tutu malgua egokia ez izatea edo tutuaren konexioa egokia ez izatea.»

«3.1.2.j) Errekuntza txarra izatea, lokalean 15 eta 30 ppm bitarteko karbono monoxidoaren kontzentrazioa atzeman delako, eta aparatuari 400 eta 1.000 ppm bitarteko isuria atzeman zaiolako (galdara itxien kasuan ez da aplikatuko).»

«3.1.2.v) Garra itzaltzen denerako segurtasun-gailurik ez egotea edo segurtasun-gailuak txarto funtzionatzea (hustuketa bideratua duten aparatuak, labe eta egosketa industrialak).»

«3.2.1.a) Gas-ihesa egotea lurrean sartutako zatian, eraikinaren barrualdean edo PGLko edozein tartetan.»

«3.2.1.b) Gas-ihesa egotea kanpoaldeko aireko tarte batean, 5 litro orduko baino emari handiagoarekin edo berehalako istripu-arriskuarekin.»

c) Honako idatz-zati hauek gehitu eta honela geratu dira:

«3.1.1.l) Atmosferako kutsadura kontrolatzeko gailurik ez izatea, nahitaezkoa denean.»

«3.1.2.v) Garra itzaltzen denerako segurtasun-gailurik ez egotea edo segurtasun-gailuak txarto funtzionatzea (hustuketa bideratua duten aparatuak, labe eta egosketa industrialak).»

«3.2.1.e) Estankotasunik ez izatea, goi-airezta-penetik sabaira bitarte arrailak edo pitzadurak daudelako.»

«3.1.2.w) Gas-detektagailuen kontrolik ez egitea (edo agirietan jaso gabe egotea).»

d) 3.1.1.d. idatz-zatia kendu da.

e) 6.1. artikuluari beste paragrafo bat erantsi zaio:

«Gas-ihesari dagokionez, 3.1.2.a) eta 3.2.2.b) idatz-zatietan jasotako akats arinak konpondu direla egiaztatu beharko da gehienez 4 eguneko epean.»

f) Ikuskapen eta azterketetan erabili beharreko dokumentuak 2. eranskinean bildu dira.

3.– Erabilera industrialeko instalazioen ikuskapen eta azterketak UNE 60620 edo 60670 (12. zatia) arauei jarraiki egingo dira. 2. eranskinean dago erabili beharreko dokumentua.

Ikuskapen eta azterketen aldizkakotasuna eta kontrol-prozedurak urtarrilaren 29ko 28/2002 Dekretuko 10. artikuluan eta Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2002ko apirilaren 16ko Aginduko 2. artikuluan ezarritakoari atxikiko zaizkio.

4.– Azterketak egiten dituzten erakundeek dagokien Lurralde Bulegoan jakinarazi beharko dute erabiltzaileari eragingo dioten kostua.

«3.1.2.i) Tubo flexible inadecuado o conexión defectuosa del mismo.»

«3.1.2.j) Mala combustión al detectarse en el local concentraciones de monóxido de carbono entre 15 y 30 ppm, así como emisiones del aparato entre 400 y 1.000 ppm (no será aplicable a las calderas estancas).»

«3.1.2.v) Inexistencia o funcionamiento incorrecto de los dispositivos de seguridad por falta de llama (aparatos conducidos, hornos y cocción industrial).»

«3.2.1.a) Fuga de gas en tramo enterrado, en interior de edificio o cualquiera de GLP.»

«3.2.1.b) Fuga de gas en tramo aéreo exterior con caudal superior a 5 litros/hora o con riesgo inminente.»

c) Se añaden los siguientes apartados, que quedarán redactados como sigue:

«3.1.1.l) Inexistencia de dispositivo de control de contaminación de atmósfera, cuando sea preceptivo.»

«3.1.2.v) Inexistencia o funcionamiento incorrecto de los dispositivos de seguridad por falta de llama (aparatos conducidos, hornos y cocción industrial).»

«3.2.1.e) Falta de estanquidad por existencia de grietas o fisuras desde la ventilación superior hasta el techo sólo en Gas natural.»

«3.1.2.w) No realización de los controles de los detectores de gas (o no está documentado).»

d) Se anula el apartado 3.1.1.d.

e) Se añade un nuevo párrafo al artículo 6.1:

«La corrección de las deficiencias por fugas de gas, que se consideran leves recogidas en los apartados 3.1.2.a) y 3.2.2.b) se acreditará en un plazo máximo de 4 días.»

f) Los documentos a utilizar en las inspecciones y revisiones se indican en el anexo 2.

3.– Las inspecciones y revisiones de las instalaciones de uso industrial se realizarán de acuerdo con las normas UNE 60620 o 60670 parte 12. El documento a utilizar se indica en el anexo 2.

La periodicidad y los procedimientos de control de las inspecciones y revisiones se realizarán atendiendo a lo indicado en el artículo 10 del Decreto 28/2002, de 29 de enero y el artículo 2 de la Orden de 16 de abril de 2002 del Consejero de Industria, Comercio y Turismo.

4.– Las entidades que realicen las revisiones deberán comunicar el coste para los usuarios en la correspondiente Oficina Territorial.

5.– Instalazioan esku hartzen duen edozein agentek (LTZ Laguntza Teknikoko Zerbitzuak, azterketa-enpresak, hornitzaileak) akats larriren bat atzematen badu instalazioan eta ezin badu konpondu, aparatu akastuna zerbitzuz kanpo utzi beharko du.

Erabiltzaileak ez badu nahi aparatua geldiaraztea, agente horrek lehenbailehen jakinarazi beharko dio enpresa hornitzaileari eta dagokion Lurralde Bulegoari.

3. artikulua.– Gas-instalazioetan eta gas-aparatuetan esku hartzen duten enpresak eta langileak.

1.– Laguntza Teknikoko Zerbitzuak (LTZ) ematen dituzten enpresak 63/2006 Dekretuaren (martxoaren 14koa da eta industria-segurtasunaren alorrean kualifikazio indibidualeko txartelak eta enpresa baimenduak arautzen ditu) eta 2006ko apirilaren 10eko Aginduaren (Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena da eta industria-segurtasunaren alorrean Kualifikazio Indibidualeko Txartelak eta Enpresa Baimenduak arautzen dituen martxoaren 14ko 63/2006 Dekretua garatzen du) arabera hartuko dira enpresa baimendutzat.

2.– Enpresa baimendutzat hartzekotan, Laguntza Teknikoko Zerbitzuak (LTZ) egiten dituzten enpresek martxoaren 14ko 63/2006 Dekretu horretan aurreikusitako eskakizunak bete beharko dituzte, eta fabrikatzailearen baimena badutela ere egiaztatu beharko dute.

4. artikulua.– PGLak biltegiratzeko andelak.

1.– Petrolioaren gas likidotuak (PGL) andel finkoetan biltegiratzen dituzten instalazioetan egin beharreko aldizkako ikuskapenak eta mantentze-lanak arautzen dituen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2004ko azaroaren 4ko Aginduan ezarritakoaren arabera egin behar dira instalazioetako mantentze-lanak eta aldizkako ikuskapenak, honako alderdi hauek kontuan izanik:

a) 4. artikuluaren lehen idatz-zatia honela geratuko da:

> «Instalazioak bost urtean behin ikuskatu beharko dira, kanalizazio bidezko banaketaren kasuan izan ezik, kasu horretan bi urtean behin ikuskatu beharko baitira.»

b) I. eranskinaren c idatz-zatian adierazitako lur-harguneari dagokion puntua honela geratuko da.

> «Lur-hargunea.
>
> Aireko tangetan, horien lur-hargunearen egoera egiaztatuko da, baita erresistentziaren balioa ere (80 ohm gehienez). Pika non instalatuta dagoen zehaztuko da eta zisterna-kamioia bertara erraz irits daitekeen ere bai, baita lekualdatutako betetze-hargunera erraz irits daitekeen ere, hala badagokio.»

5.– En el caso de que se detecte una deficiencia grave en una instalación por cualquier agente que interviene en la misma (Servicio de Asistencia Técnica-SAT, empresa de revisiones, suministradora) y ésta no pueda ser resuelta por el mismo agente, éste deberá dejar fuera de servicio el aparato defectuoso.

Si el usuario se negase a la paralización del aparato, el agente actuante deberá comunicarlo de forma inmediata a la empresa suministradora y a la Oficina Territorial correspondiente.

Artículo 3.– Empresas y personal que intervienen en instalaciones y aparatos a gas.

1.– Las empresas que realizan los Servicios de Asistencia Técnica (SAT) tendrán la consideración de empresas autorizadas conforme al Decreto 63/2006, de 14 de marzo, por el que se regulan los carnés de cualificación individual y las empresas autorizadas en materia de seguridad industrial y la Orden de 10 de abril de 2006, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se desarrolla el Decreto 63/2006, de 14 de marzo, por el que se regulan los Carnés de Cualificación Individual y las Empresas autorizadas en materia de seguridad industrial.

2.– Para tener la condición de empresas autorizadas, las empresas que realizan los Servicios de Asistencia Técnica (SAT), deberán cumplir los requisitos previstos en el mencionado Decreto 63/2006, de 14 de marzo, y además deberán acreditar que disponen de la autorización del fabricante.

Artículo 4.– Depósitos de almacenamiento de GLP.

1.– El mantenimiento y las revisiones periódicas de las instalaciones se realizarán atendiendo a lo indicado en la Orden de 4 de noviembre de 2004, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regulan las inspecciones periódicas y el mantenimiento de los almacenamientos de Gases Licuados del Petróleo (GLP) en depósitos fijos, con las siguientes modificaciones:

a) El primer párrafo del artículo 4 quedará redactado de la siguiente forma:

> «Las instalaciones deberán inspeccionarse con una periodicidad de 5 años, salvo en el caso de almacenamientos para distribución por canalización, que será de 2 años.»

b) El punto correspondiente a la toma de tierra indicado en el apartado c del anexo I quedará redactado de la siguiente forma.

> «Toma de tierra.
>
> En los depósitos aéreos se comprobará el estado de su conexión a tierra y el valor de la resistencia, que deberá ser inferior a 80 ohmios. Se localizará dónde va instalada la pica y su accesibilidad al camión cisterna, así como, en su caso, la correspondiente a la de la boca de carga desplazada.»

c) I. eranskinaren d idatz-zatian adierazitako kanalizazioen estankotasunari dagokion puntua honela geratuko da.

«Kanalizazioen estankotasun-proba.

Estankotasun-proba instalazioa hornitzeko baldintzetan dagoela egingo da, hau da, egiaztapena gauzatzeko aska zitezkeen elementuak muntatu ondoren. Proba hori 3 bar-ko presioan eta gutxienez 15 minutuz egingo da.

Probak irauten duen bitartean hodian muntatuta dauden elementuen (giltzak, erreguladoreak, etab.) estankotasuna xaboi-urez edo gas-detektatzaile baten bidez egiaztatuko da.»

d) VI. eranskinean bildutako PGL biltegiratzeko fitxa teknikoak Agindu honetako 3. eranskinean adierazitakoak ordeztuko du.

2.– Gas-erregaien erabilerari zein banaketari eta ICG (1-11) jarraibide tekniko osagarriei buruzko Arautegi teknikoa onartzen duen uztailaren 28ko 919/2006 Errege Dekretuak onartutako ITC-ICG 03 jarraibidearen 5.6 artikuluari dagokionez Lurralde Bulegoetan aurkeztu beharreko dokumentazioa dokumentu bakoitzaren ale bakar bati dagokiona izango da.

3.– Instalazioko eta ikuskapeneko egiaztagiri-ereduak 3. eranskinean bildu ditugu.

5. artikulua.– Segurtasun baliokidea eta salbuespenak.

Gas-erregaien erabilerari zein banaketari eta ICG (1-11) jarraibide tekniko osagarriei buruzko Arautegi teknikoa onartzen duen uztailaren 28ko 919/2006 Errege Dekretuaren 9.b) eta 10. artikuluei dagokienez, segurtasun baliokideko teknikak aplikatu nahi dituzten edo preskripzioekiko salbuespena eskatu nahi duten instalazioek gaian eskumena duen zuzendaritzaren onespenebazpena lortu beharko dute, instalazioak martxan jarri aurreko probak eta ikuskapenak egin baino lehen.

6. artikulua.– Europar Batasuneko kide diren beste Estatuetako ziurtatze-erakundeak.

Arloan eskuduna den zuzendaritzaren ebazpenaren bidez, adostasuna emateko ebaluazio-erakundeak zeintzuk diren jakin ahalko da gas-erregaien banaketari eta erabilerari buruzko Arautegi teknikoaren irizpideei jarraiki; uztailaren 28ko 919/2006 Errege Dekretuak onartu zuen arautegi hori.

7. artikulua.– Enpresa banatzaile edo hornitzaileei buruzko arau partikularrak.

Enpresa banatzaile edo hornitzaileen arau partikularrak erabiltzeko, dagokion zuzendariak aldez aurretik onartu behar ditu arau horiek, ebazpen bidez.

c) El punto correspondiente a la prueba de estanquidad de las canalizaciones indicado en el apartado d del anexo I quedará redactado de la siguiente forma:

«Prueba de estanquidad de las canalizaciones.

La prueba se realizará con la instalación en condiciones de suministro (después de haber realizado el montaje de los elementos que hayan podido soltarse para su comprobación) y a la presión de 3 bar, durante al menos quince minutos.

Durante el tiempo de prueba, se comprobará la estanquidad de los distintos elementos instalados en la tubería (llaves, reguladores, etc.) por medio de agua jabonosa o detector de gas.»

d) Se sustituye la ficha técnica de almacenamiento de GLP del anexo VI por la indicada en el anexo 3 de la presente Orden.

2.– La documentación a presentar en las Oficinas Territoriales, en relación con el artículo 5.6 de la ITC-ICG 03, aprobada por Real Decreto 919/2006, de 28 de julio, por el que se aprueba el Reglamento técnico de distribución y utilización de combustibles gaseosos y sus instrucciones técnicas complementarias ICG 01 a 11, será la correspondiente a un solo ejemplar de cada documento.

3.– Los modelos de certificados de instalación y de inspección a utilizar se indican en el anexo 3.

Artículo 5.– Seguridad equivalente y excepciones.

Las instalaciones que pretendan aplicar técnicas de seguridad equivalente o solicitar la exención a las prescripciones del Real Decreto 919/2006, de 28 de julio, por el que se aprueba el Reglamento técnico de distribución y utilización de combustibles gaseosos y sus instrucciones técnicas complementarias ICG 01 a 11, de acuerdo con lo prescrito en los artículos 9.b) y 10 del reglamento, deberán obtener la correspondiente Resolución de aprobación de la Dirección competente en la materia, con anterioridad a la realización de las pruebas e inspecciones previas a la puesta en servicio de las instalaciones.

Artículo 6.– Entidades de certificación de otros Estados miembros de la Unión Europea.

Mediante Resolución de la Dirección competente en la materia, podrán reconocerse organismos de evaluación de la conformidad, de acuerdo con los criterios del artículo 11 del Reglamento técnico de distribución y utilización de combustibles gaseosos, aprobado por Real Decreto 919/2006, de 28 de julio.

Artículo 7.– Normas particulares de Empresas distribuidoras o suministradoras.

La utilización de normas particulares de empresas distribuidoras o suministradoras requerirá la aprobación previa mediante Resolución del Director correspondiente.

8. artikulua.– Istripuak.

1.– Istripu edo gertakari arinak.

a) Hornketa egiten dien instalazioetan, gasa banatu edo hornitzen duten enpresek istripu edo gertakari arinen baten berri izaten dutenean edozein bidetatik (abisua, komunikabideak, eta abar.), lurraldearen arabera eskuduna den industriako Lurralde Bulegoan jakinarazi beharko dute.

b) Gertakaria jazo eta 48 orduko epean txosten bat egin beharko dute gertakariaren nondik norakoak jasotzeko, eta ahal izanez gero, istripua zerk eragin duen ere zehaztuko da.

2.– Istripu larriak.

a) Inor zauritua izan bada, edo kalte material garrantzitsuak gertatu badira, berehala eman behar da abisua dagokion lurralde bulegoan, instalazioaren ikuskapena egiteko organo horren zerbitzu teknikoekin batera.

b) 48 orduko epe horretan, gasa banatu edo merkaturatzen duen enpresak istripuari buruzko behin-behineko txostena egin behar du, istripuaren nondik norakoak, arrazoiak eta ondorioak aipatuta. Ikerketa amaitu eta, hala badagokio, egoki iritzitako proba edo saiakuntzak egin ostean, enpresak Txosten Teknikoa egingo du nondik norako horiek azaltzeko, eta enpresak ateratako behin betiko ondorioak bildu beharko ditu.

9. artikulua.– Gas-detektagailuak.

Gasa detektatzeko elementuak dituzten instalazioetan, sei hilean behin egiaztatu beharko da sistemak behar bezala funtzionatzen duela.

Kontrola egiten duen enpresak emandako egiaztapen-agiri baten bidez edo kontrolen erregistroan itzaohar bat eginez, aipatu kontrolak dokumentatu egin beharko dira, instalatzailearen edo ekipoaren fabrikatzailearen jarraibideekin erabiltzaileak egiten baditu.

Instalazioaren ikuskapen edo azterketetan, dagozkion kontrolak egiten direla egiaztatu behar da; kontrol horiek ez egitea edo dokumentaziorik edo idatzoharrik ez izatea akats arintzat hartu eta horrela jaso beharko da.

10. artikulua.– Informazio estatistikoa.

Enpresa banatzaile eta hornitzaileek, baita instalazio hartzaileen ikuskapenak egiten dituzten enpresek ere, gaian eskuduna den zuzendaritzak erabakitako datu estatistikoak aurkeztu beharko dituzte urtean behin, otsaila amaitu aurretik.

Artículo 8.– Accidentes.

1.– Accidentes o incidentes de carácter leve.

a) Siempre que las empresas distribuidoras o suministradora de gas, tengan conocimiento, por cualquier medio (aviso, medios de comunicación, etc.) de que se ha producido un accidente o incidente leve, en las instalaciones a las que suministran, deberán comunicarlo a la Oficina Territorial de industria que resulte competente por razón del territorio.

b) En el plazo de 48 horas desde que se produzca el suceso deberán elaborar un informe en el que se contengan las circunstancias del mismo y siempre que sea posible, se determinarán las causas del accidente.

2.– Accidentes de carácter grave.

a) En el supuesto de que existan daños a las personas, o se hayan producido daños materiales de consideración, se deberá avisar de forma inmediata a la referida Oficina Territorial al efecto de que, conjuntamente con los servicios técnicos de este órgano, se pueda realizar la inspección de la instalación.

b) En el mismo plazo de 48 horas, por parte de la empresa distribuidora o comercializadora se deberá elaborar un informe provisional del accidente, comprensivo de las circunstancias, las causas y las consecuencias derivadas del mismo. Una vez finalizada la investigación y realizadas las pruebas o ensayos que en su caso procedan, se elaborará por la misma empresa un informe técnico, comprensivo de las referidas circunstancias y que contenga las conclusiones definitivas a las que llegue dicha empresa.

Artículo 9.– Detectores de gas.

En aquellas instalaciones que dispongan de elementos de detección de gas, se deberá realizar una comprobación del funcionamiento del sistema cada seis meses.

Estos controles deberán documentarse, mediante la emisión de un documento de comprobación por parte de la empresa que lo realice o mediante la anotación en el correspondiente registro de controles, en caso de realizarlo el usuario con las instrucciones del instalador o del fabricante del equipo.

En las inspecciones o revisiones de la instalación se deberá comprobar la realización de los controles correspondiente, debiendo anotarse como defecto leve la no realización de los mismos o la inexistencia de documentación o anotación.

Artículo 10.– Información estadística.

Las empresas distribuidoras y suministradoras, así como las empresas revisoras de instalaciones receptoras deberán presentar anualmente, antes de fin de febrero, los datos estadísticos que se determinen por la Dirección competente en la materia.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.– Enpresa banatzaileek eta ikuskapenak egiteko enpresa baimenduek prozedurak egokitu beharko dituzte agindu honetan xedaturikoaren arabera, baina agindu hau argitaratzen denetik kontatzen hasita, sei hilabeteko epea dute dokumentu horiek aurkezteko.

Bigarrena.– Gas-erregaien erabilerari zein banaketari eta ICG (1-11) jarraibide tekniko osagarriei buruzko Arautegi teknikoa onartzen duen uztailaren 28ko 919/2006 Errege Dekretua indarrean hasi aurretik baimendutako txartelen eta enpresen titular zirenek aukera izango dute beren ahalmenei eusteko baliozkotzeko epea amaitu bitarte; kreditazioak epe hori amaitu aurretik iraungitzen bazaizkie, aldi horretarako soilik berritu ditzakete.

Hirugarrena.– Gas-erregaien erabilerari zein banaketari eta ICG (1-11) jarraibide tekniko osagarriei buruzko Arautegi teknikoa onartzen duen uztailaren 28ko 919/2006 Errege Dekretuan eta Agindu honetan ezarritako jardunak bete nahi badituzte, gaur egun Lagunza Teknikoko Zerbitzua (LTZ) ematen duten enpresek ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute, Agindu hau argitaratzen denetik kontatzen hasita 6 hilabeteko epean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Lehenengoa.– Etxe- eta merkataritza-erabilerako eta erabilera kolektiboko gas zerbitzuen instalazioak nola ikuskatu eta berrikusi arautzen duen urtarrilaren 29ko 28/2002 Dekretua garatzeko xedapenak ematen dituen 2002ko apirilaren 16ko Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren Aginduaren 1., 2. eta 3. eranskinak eta Petrolioaren Gas Likidotuak (PGL) tanga finkoetan biltegiratzen dituzten instalazioetan egin beharreko aldizkako ikuskapenak eta mantentze-lanak arautzen dituen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2004ko azaroaren 4ko Aginduan indargabetu dira.

Bigarrena.– Honako instrukzio hau indargabetu da: 2002ko urtarrilaren 7ko Instrukzioa, Industria eta Meategiak Administratzeko zuzendariarena, zerbitzatzen duten instalazioren batean istripuren bat gertatuz gero, gasa banatu eta/edo merkaturatzen duten enpresek nola jardun behar duten adierazten duena.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honen eranskinetan hartutako dokumentuek hainbat eredu izan ditzakete, betiere eranskin horietan aurreikusitako datu guztiak jasotzen badituzte.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera.– Las empresas distribuidoras y las autorizadas para realizar revisiones deberán adaptar sus procedimientos a la presente Orden, debiendo presentar dichos documentos en un plazo de seis meses desde la publicación de la presente Orden.

Segunda.– Los titulares de los carnés y las empresas autorizadas antes de la entrada en vigor del Real Decreto 919/2006, de 28 de julio, por el que se aprueba el Reglamento técnico de distribución y utilización de combustibles gaseosos y sus instrucciones técnicas complementarias ICG 01 a 11, podrán seguir manteniendo sus competencias hasta el plazo máximo de convalidación, pudiendo renovar sus correspondientes acreditaciones, en caso de que caduquen antes de dicho plazo, únicamente por ese periodo.

Tercera.– Las empresas que actualmente realizan los servicios de asistencia técnica (SAT), para poder realizar las actuaciones indicadas en el Real Decreto 919/2006, de 28 de julio, por el que se aprueba el Reglamento técnico de distribución y utilización de combustibles gaseosos y sus instrucciones técnicas complementarias ICG 01 a 11 y en la presente Orden, deberán contar con la autorización correspondiente como empresa autorizada en el plazo de 6 meses desde la publicación de la presente Orden.

DISPOSICIONES DEROGATORIAS

Primera.– Se derogan los anexos 1, 2 y 3 de la Orden de 16 de abril de de 2002, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se dictan las disposiciones de desarrollo del Decreto 28/2002, de 29 enero, que regula la inspección y revisión de las instalaciones de gas en servicio, destinadas a usos domésticos, colectivos o comerciales, y la ficha técnica de almacenamiento de GLP del anexo VI de la Orden de 4 de noviembre de 2004, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regulan las inspecciones periódicas y el mantenimiento de los almacenamientos de gases licuados del petróleo (GLP) en depósitos fijos.

Segunda.– Se deroga la instrucción de 7 de enero de 2002 del Director de Administración de Industria y Minas, en relación con la actuación de las empresas distribuidoras y/o comercializadoras de gas en caso de accidente en las instalaciones a las que suministran.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Los documentos incluidos en los anexos de la presente Orden podrán presentar modelos diferentes, debiendo contener los datos previstos en los citados anexos.

Bigarrena.– Gaian eskuduna den zuzendariak ahalmena du agindu honekin batera doazen eranskinak aldatzeko edo dokumentu berriak gehitzeko.

Hirugarrena.– Xedapen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko urriaren 8a.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
ANA AGIRRE ZURUTUZA.

Segunda.– Se faculta al Director competente en la materia para modificar los anexos que acompañan a la presente Orden o añadir nuevos documentos.

Tercera.– La presente disposición entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de octubre de 2007.

La Consejera de Industria, Comercio y Turismo,
ANA AGIRRE ZURUTUZA.

I. ERANSKINA / *ANEXO 1*

BARNEKO GAS HARGUNEAREN EGIAZTAGIRIA

Egiaztagiri-zk.:.

CERTIFICADO DE ACOMETIDA INTERIOR DE GAS

Nº CERTIFICADO

Enpresa instalatzailea edo enpresa kontratista / *Empresa instaladora o empresa contratista:*
Izena / *Nombre:* ..... IFK / *CIF:* .....
Helbidea / *Dirección:* ..... Tel./ *Tfno.:* .....
Kategoria / *Categoría:* ..... Erregistro-zk./ *Nº Registro:* .....
Nork emandakoa / *expedido por:* .....

Instalatzaile baimendua / *Instalador autorizado:*
Izena / *Nombre:* ..... NAN / *DNI:* .....
Kategoria / *Categoría:* ..... Txartel-zk./ Nº carné: .....
Nork emandakoa / *expedido por:* .....
Polietileno-soldatzailea / *Soldador de polietileno:*
Izena / *Nombre:* ..... NAN / *DNI:.* .....
Egiaztatze-zk. / *Nº acreditación:* ..... Nork emandakoa / *expedido por:* .....

EGIAZTATZEN DU

1- Honako ezaugarri hauek dituen instalazioa egin dela eta aplikatu behar zaizkion indarreko legeriaren xedapen eta arautegi guztiak betetzen dituela.

CERTIFICA

1- Que la instalación cuyas características se indican a continuación, ha sido ejecutada y cumple con todas las disposiciones y normativas de la legislación vigente que le son de aplicación.

☐ hargune berria / *nueva acometida*	☐ zabaltzea / *ampliación*	☐ aldaketa / *modificación*
Kalea/ *Calle:*		Zk./ *Nº:*
Herria/ *Localidad:*		
	- Instalazioaren diseinu-potentzia / *potencia de diseño de la instalación:*	[kW]
	- Instalazio komunen kopurua / *número de instalaciones comunes:*	
Trazatua / *Trazado:*	☐ lurperatua / *enterrado* — *materiala / material:*	
	☐ airekoa / *aéreo* — *materiala / material:*	

2- Estankotasun-probak egin direla, eta emaitza ona eman dutela. Maniobratzeko gailuak ere ongi dabiltzala.

2- Que se han realizado con resultado satisfactorio las correspondientes pruebas de estanquidad, y que los dispositivos de maniobra funcionan correctamente.

3- Honekin batera doaz:

3- Que se acompaña:

- Aurreko hargunearen krokisa. ☐ *- Croquis de la acometida interior.*
- Planoa, barneko harguneak plantan eta altxaeran duen kokapena zehaztuz. ☐ *- Plano con detalle de la situación de la acometida interior en planta y alzado.*
- Lurpeko barneko hargunearen bide-zor iraunkorrerako eskubidea hornitzailearen alde. ☐ *- Derecho de servidumbre de paso permanente de la acometida interior enterrada a favor del suministrador*

Instalazioa egin duen enpresak bere gain hartzen du gaizki egikaritu izanari egotz dakiokeen edozein akatsen eta akats horretatik eratorritako ondorioen erantzukizuna 4 urtez, instalazioa amaitzen den egunetik zenbatzen hasita.

La empresa que ha realizado la instalación se responsabiliza, por un periodo de 4 años, contados desde la finalización de la instalación, de cualquier deficiencia atribuible a una mala ejecución, así como de toda consecuencia que de ella se derive.

Data	Instalatzaile baimenduaren sinadura	Enpresaren zigilua
Fecha	*Firma del instalador autorizado*	*Sello de la empresa*

(eredua / *modelo* IRG-I)

GAS INSTALAZIO HARTZAILE KOMUNAREN EGIAZTAGIRIA

CERTIFICADO DE INSTALACIÓN COMÚN RECEPTORA DE GAS

Egiaztagiri-zk.: ☐ *Nº CERTIFICADO*

Enpresa instalatzailea / *Empresa instaladora:*
Izena / *Nombre:* ..... IFK / *CIF*: .....
Helbidea / *Dirección*: ..... Tel./ *Tfno.*: .....
Kategoria / *Categoría:* ..... Erregistro-zk./ *Nº Registro:* .....
Nork emandakoa / *expedido por:* .....

Instalatzaile baimendua / *Instalador autorizado:*
Izena / *Nombre:* ..... NAN / *DNI:* ....
Kategoria / *Categoría:* ..... Txartel-zk./ *Nº carné:* .....
Nork emandakoa / *expedido por:* .....

EGIAZTATZEN DU

1- Honako ezaugarri hauek dituen instalazioa egin dela eta aplikatu behar zaizkion indarreko legeriaren xedapen eta arautegi guztiak betetzen dituela.

CERTIFICA

1- Que la instalación cuyas características se indican a continuación, ha sido ejecutada y cumple con todas las disposiciones y normativas de la legislación vigente que le son de aplicación.

☐ Instalazio berria / *nueva instalación* ☐ zabaltzea / *ampliación* ☐ aldaketa/*modificación*	Gas mota/*Tipo de gas:*
Kalea/ *Calle*: Herria/ *Localidad:*	Zk./ *Nº:*
Instalazioaren diseinu-potentzia / *potencia de diseño de la instalación:* [kW] Banako instalazioen kopurua / *número de instalaciones individuales:*	

2- Estankotasun-probak egin direla, eta emaitza ona eman dutela. Maniobratzeko gailuak ere ongi dabiltzala.

2- Que se han realizado con resultado satisfactorio las correspondientes pruebas de estanquidad, y que los dispositivos de maniobra funcionan correctamente.

3- Honekin batera doaz:

3- Que se acompaña:

- Instalazio komunaren krokisa. ☐ *- Croquis de la instalación común.*
- ..... ☐ - .....

Instalazioa egin duen enpresak bere gain hartzen du gaizki egikaritu izanari egotz dakiokeen edozein akatsen eta akats horretatik eratorritako ondorioen erantzukizuna 4 urtez, instalazioa amaitzen den egunetik zenbatzen hasita.

La empresa que ha realizado la instalación se responsabiliza, por un periodo de 4 años, contados desde la finalización de la instalación, de cualquier deficiencia atribuible a una mala ejecución, así como de toda consecuencia que de ella se derive.

Data	Instalatzaile baimenduaren sinadura	Enpresaren zigilua
Fecha	*Firma del instalador autorizado*	*Sello de la empresa*

(eredua / *modelo* IRG-II)

BANAKO GAS INSTALAZIO HARTZAILEAREN EGIAZTAGIRIA

CERTIFICAD0 DE INSTALACIÓN INDIVIDUAL RECEPT0RA DE GAS

Egiaztagiri-zk.: ☐

Nº CERTIFICAD0

Enpresa instalatzailea / *Empresa instaladora:*
Izena / *Nombre:* ..... IFK / *CIF:* .....
Helbidea / *Dirección:* ..... Tel./ *Tfno.:* .....
Kategoria / *Categoría:* ..... Erregistro-zk./ *Nº Registro:* ....
Nork emandakoa / *expedido por:* ....

Instalatzaile baimendua / *Instalador autorizado:*
Izena / *Nombre:* ..... NAN / *DNI:* .....
Kategoria / *Categoría:* ..... Txartel-zk./ *Nº carné:* .....
Nork emandakoa / *expedido por:* ....

EGIAZTATZEN DU

1- Honako ezaugarri hauek dituen instalazioa egin dela eta aplikatu behar zaizkion indarreko legeriaren xedapen eta arautegi guztiak betetzen dituela.

CERTIFICA

1- Que la instalación cuyas características se indican a continuación, ha sido ejecutada y cumple con todas las disposiciones y normativas de la legislación vigente que le son de aplicación.

☐ Instalazio berria / *nueva instalación* ☐ zabaltzea / *ampliación* ☐ aldaketa / *modificación* Gas Mota/ *Tipo de gas*

Kalea/ *Calle:* Zk./ *Nº:*

Herria/ *Localidad:*

Instalazioaren potentzia nominala / *Potencia nominal de la instalación:* {kW}

erabilera / *uso:* ☐ etxeko banakoa *doméstico individual* ☐ etxeko kolektiboa *doméstico colectivo* ☐ merkataritza *comercial* ☐ industriala *industrial* ☐ beste bat *otro:*

2- Instalatu edo erabili behar diren aparatuak*:

2- Que los aparatos instalados o previstos a utilizar son:*

Aparatu mota *Tipo de Aparato*	Marka-modeloa *Marca-modelo*	Potentzia[kW] *Potencia{kW}*	instalatua *instalado*	Abiatzeko agentea *Agente de p.m.*
			☐ bai/*si* ☐ ez/*no*	
			☐ bai/*si* ☐ ez/*no*	
			☐ bai/*si* ☐ ez/*no*	
			☐ bai/*si* ☐ ez/*no*	
			☐ bai/*si* ☐ ez/*no*	

* Egindako aparatu-konexio guztiei dagozkien aparatuak adierazi

** indicar tantos aparatos como el número de conexiones de aparatos realizadas*

3- Estankotasun-probak egin direla, eta emaitza ona eman dutela. Maniobratzeko gailuak ere ongi dabiltzala.

3- Que se han realizado con resultado satisfactorio las correspondientes pruebas de estanquidad, y que los dispositivos de maniobra funcionan correctamente.

4- Instalazio berriari dagokionez, aparatuetako konexio-giltzak itxi eta prezintatu direla, eta aparatuei konektatu ez zaizkien irteerak buxatu direla.

4- Que, en caso de nueva instalación, se han dejado cerradas y precintadas las llaves de conexión de los aparatos, y taponadas, en su caso, las salidas no conectadas a los aparatos.

5- Eraikinak berokuntza-galdara edo berogailua
☐ instalatu duela ☐ ez duela instalatu.
gasak honela hustu dira:
☐ eraikinaren estalkitik
☐ fatxada edo ase gabeko aireztapen-patiotik; arrazoiak:
☐ Eraikinaren estalkirako hustubiderik ez izatea
☐ Hustubidea gaizki ibiltzea
☐ Hustubidea desegokia izatea
☐ Errekuntza txarrak eragindako akats larria, ikuskatze edo berrikuste-aktan adierazi dena

5- Que, en caso de edificio existente
☐ *si* ☐ *no*
ha instalado una caldera de calefacción o calentador, siendo la evacuación por:
cubierta del edificio
☐ *fachada o patio de ventilación no saturado, por:*
☐ *Inexistencia de conducto de evacuación a la cubierta*
☐ *Mal funcionamiento del conducto existente*
☐ *Falta de idoneidad del conducto existente*
☐ *Defecto grave por mala combustión señalado en el Acta de inspección o revisión*

6- Honekin batera doaz:
- Banako instalazioaren krokisa (biltegiarena barne). ☐
- Tximiniaren diseinu eta eraikuntzako ziurtagiria ☐
- ..... ☐

6- Que se acompaña:
☐ *- Croquis de la instalación individual (incluido el almacenamiento).*
☐ *- Certificado de diseño y ejecución de la chimenea*
☐ *- .....*

Instalazioa egin duen enpresak bere gain hartzen du gaizki egikaritu izanari egotz dakiokeen edozein akatsen eta akats horretatik eratorritako ondorioen erantzukizuna 4 urtez, instalazioa amaitzen den egunetik zenbatzen hasita.

